

Euskal itzulpengintza gaur: argitaletxeen funtzioa euskarazko literatur itzulpenetan

GRADU AMAIERAKO LANA

Olatz Unanue Aramburu

Itzulpengintza eta Interpretazioko Gradua

Euskal Herriko Unibertsitatea, Letren Fakultatea

Tutorea: Isabel Etxeberria Ramirez

Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketen Saila

2017/2018 ikasturtea

LABURPENA

Izenburuak iradokitzen duen bezala, argitaletxeek euskarazko literatur itzulpenean betetzen duten funtzioa izango dugu lan honetan aztergai. Argi utzi nahi genuke hasieratik gure helburua ez dela izango literatur itzulpenen ezaugarri linguistikoak aztertzea, baizik egiten diren literatur itzulpenetan, argitaletxeek zer nolako eragina duten ikusi eta itzulpen horiek zer nolako testuingurutan egiten diren ikertzea, horretarako elkarrikketa bidezko metodologia erabiliz.

Hasteko, lan honen lehen atalean, euskarazko itzulpenak argitaratzen dituzten argitaletxeen katalogo bat prestatzen hasi gara, argitaletxe horietako bakoitzaren ezaugarri aipagarrienak nabarmenduz. Lan honen ezaugarriak kontuan hartuz, jakitun gara katalogo horrek oraindik ere hutsuneak dituela eta ez dituela gaur egun euskarazko literatur itzulpenak argitaratzen dituzten argitaletxe guztiak biltzen, baina ahalegindu gara ahal den neurrian argitaletxeek gaur egungo euskarazko literatur itzulpenetan duten zeresanaren inguruko panorama orokor bat eskaintzen: zein diren euskarazko literatur itzulpenak argitaratzen dituzten argitaletxeak, sormen-lanen aldean itzulpenek zer nolako pisua duten argitaletxe horietan, euskarazko itzulpenek zenbateko pisua duten beste hizkuntzetara egindako itzulpenen aldean, zein hizkuntzatatik itzultzen den nagusiki euskarara, zein generotako lanak izaten diren eta lan horiek jatorrizko hizkuntzetatik edo zubi-hizkuntzak erabiliz itzultzen ote diren.

Behin euskarazko literatur itzulpenaren ikuspegi hori ulertuta, literatur itzulpen horiek zein testuingurutan egiten diren jakin nahi izan dugu, eta horretarako, itzulgaiak eta itzultzaileak nola aukeratzen diren aztertzeaz gain, itzultzaileek zein baldintzatan lan egiten duten ezagutu nahi izan dugu.

Jarraian, itzulpenari eta itzultzaileari ematen zaion ikusgarritasunari erreparatu diogu, liburuen elementu paratestualetan arreta jarritz. Zehazki hiru izan dira aztertutako alderdiak: hasteko, itzulpen-lanetan itzultzailearen aipamenik eta bestelako daturik txertatzen den aztertu dugu; bigarrenik, jatorrizko lanaren izenbururik aipatzen den jakin nahi izan dugu; eta azkenik, zubi-hizkuntzak erabiltzen diren kasuetan horren berri ematen den argitu nahi izan dugu.

Lanaren azken atalean, itzulpenen salmentaren inguruko informazioa bildu dugu, euskarazko literatur itzulpenek merkatuan zer nolako pisua duten ezagutzeko asmotan.

Behin elkarrizketetatik ateratako ondorioak plazaratuta, azken ondorio batzuk atera ditugu, lanean zehar aipatutako ondorio aipagarrienak laburbilduz eta etorkizunera begira, euskarazko literatur itzulpenari mesede egingo lioketen proposamenak aurkeztuz. Lanari amaiera emateko, kontsultatutako iturri bibliografikoen zerrenda eta elkarrizketetan erabilitako galdetegia aurkezten dira.

AURKIBIDEA

1. Sarrera.....	6
2. Marko teorikoa.....	7
3. Metodologia.....	9
4. Elkarrizketatutako argialetxeen datu orokorrak	11
5. Euskal itzulpengintzaren ikuspegi orokorra	16
5.1. Argitalpen-motak: sormen-lanak eta itzulpenak	16
5.2. Jatorri-hizkuntzak: ingelesaren nagusitasuna.....	17
5.3. Generoa: narrazioa guztiaren gainetik	18
5.4. Zeharkako itzulpena edo zubi-hizkuntzen erabilera	18
6. Itzulgaien aukeraketa	20
6.1. Itzulpenek jasotako diru-laguntzak	22
7. Itzultzaileen aukeraketa eta lan-baldintzak.....	24
7.1. Itzultzaileen baldintzak: epeak eta tarifak.....	27
7.2. Itzultzaileek prozesuan zehar jasotako laguntza	28
8. Itzultzaileen ikusgarritasuna: elementu paratestualak	30
9. Euskal literatur itzulpenen salmenta.....	32
10. Ondorioak	35
Bibliografia	37
Eranskinak	39
I. eranskina. Elkarrizketetarako erabilitako galdetegia	39

TAULEN AURKIBIDEA

1. taula. Elkarrizketatutako argialetxeen zerrenda.....	9
2. taula. Itzulpenen presentzia euskal argialetxeetan.....	16
3. taula. Euskarazko literatur itzulpenen tiradak.....	32

GRAFIKOEN AURKIBIDEA

1. grafikoa. Elkarrizketatutako argialetxeen sorrera-urteak	11
2. grafikoa. Euskaratutako lanen JHak	17
3. grafikoa. Itzulgaiak aukeratzeko irizpideak.....	22
4. grafikoa. Itzultzaileen aukeraketa argialetxeetan	25
5. grafikoa. Itzulpenen zuzenketak elkarrizketatutako argialetxeetan.....	29

LABURDURAK

JH: jatorri-hizkuntza

MPK: Munduko Poesia Kaierak

SL: sormen-lan

ZH: zubi-hizkuntza

1. SARRERA

Lan honetan, ekimen pribatuek, hau da argitaletxeek, euskarazko literatur itzulpenetan duten eragina aztertu nahi izan dugu. Orain arte egindako azterketa gehienek testuan bertan jarri izan dute arreta, eta horregatik, ikuspegi hori zabaldu eta literatur itzulpenen atzean dagoen engranajea ulertzea izan da lan honen xedea. Badira gurean erakunde publikoek bultzatutako itzulpen-bildumak ere, horien artean Literatura Unibertsala Bilduma, baina esan bezala, lan honetan ekimen pribatuak izan ditugu ardatz. Argitaletxeek literatur itzulpenetan duten betekizunaz gutxi aztertu izan denez, interesgarria iruditu zitzaigun argitaletxeekin harremanetan jarri eta horiek literatur itzulpenaren inguruan duten ikuspegi eta jokamoldea ezagutzea. Guztira hamar izan dira elkarrizketatutako argitaletxeak eta lan honetan ateratako ondorioak elkarrizketa horietatik eskuratutako informazioan oinarrituta daude.

Ikerketa hau egiteko beste arrazoietako bat literatur itzulpenen inguruko ezjakintasuna eta itzultzaileen ikusgarritasun eza izan dira. Gure gizartean, literatur itzulpenak oso presente badaude ere, oso ezezaguna da oraindik ere literatur itzultzaileen jarduna, eta irakurle asko ez dira ohartzen itzultzaileek egindako lanari esker dutela beste hizkuntza eta kultura batean idatzitako lanez gozatzeko aukera. Horri gehitu behar zaio, gainera, literatur itzulpenetan ikusgarritasun gutxi ematen zaiela itzultzaileei (zenbait lanetan, kreditu-orrietako letra txikietan baino ez da ematen itzultzailearen berri). Horregatik, garrantzitsua iruditu zaigu itzulpenaren inguruko ezagutza gizartera zabaldu, eta horrela, itzultzaileei merezitako aitorpena egitea.

Izan ere, literaturaz gozatzen duten zenbat irakurlek galdetu ote diote beren buruari honako galdera-sorta hau: Nor arduratzen da euskarazko literatur itzulpenak argitaratzeaz? Zergatik itzultzen dira lan jakin batzuk? Nork itzultzen ditu lan horiek? Zenbat denboran egiten du lan hori? Zein izaten da lan horregatik itzultzaileak jasotzen duen ordaina? Noren laguntza jasotzen du itzulpen-prozesu horretan? Lan hau egiten hasi aurretik guk geuk ere galdera ugari genituen buruan, erantzunak, ordea, gutxi. Hortxe genuen bada gure erronka: lan honen bidez galdera horiei guztiei erantzun bat ematen saiatzea.

2. MARKO TEORIKOA

Literatura kulturaren barnean sailka genezakeen diziplina bat da, eta era berean, kultura baten isla garbia dugu literatura. Literatur itzulpenei esker, hau da, arrotzak zaizkigun hizkuntzetatik geure hizkuntzara literatur lanak inportatzeari esker, oso urrun geratzen zaizkigun herrialdeetako kulturak ezagutzeko aukera dugu. Literatur itzulpenak, hortaz, zeharo aberasgarriak dira ikuspegi kulturaletik begiratuta. Atzerriko lan horiez gozatu ahal izateko, ordea, ezinbestekoa dugu literatur itzultzaileen lana, eta arestian aipatutakoa kontuan izanik, argi geratzen da literatur itzultzaileak bi hizkuntzen arteko zubi-lanak egiteaz gain, bi kulturen arteko transmisoreak ere badirela.

Literatur itzulpena, hortaz, ez da hizkuntza batetik besterako jauzi hutsa. Itamar Even-Zohar ikerlari israeldarrak garatutako polisistemen teoriak iradoki bezala, literatur itzulpena ezin da fenomeno isolatu gisa aztertu. Even-Zoharren (1990) ustez, literatur azpisistema oro har, eta baita literatur itzulpenak ere, sistema zabalago baten barruan kokatzen dira, eta azpisistema horretan gertatzen dena ulertu ahal izateko, sistema hori aztertu behar da bere osotasunean. Beraz, literatur itzulpenak aztertzerako orduan, ez da nahikoa itzulpena bera aztertzea, itzulpen horiek sistema zabal horren eraginpean daudelako etengabe, eta horregatik, sistema horretako bestelako faktoreak ere kontuan izatea ezinbestekoa da, hala nola faktore kultural, sozial edo historikoak.

60ko eta 70eko hamarkadetatik aurrera, itzulpena ikuspegi linguistikotik harago aztertzeko joerak indarra hartu zuen Itamar Even-Zohar eta Gideon Toury ikerlari israeldarren eskutik. Azken honek *Descriptive Translation Studies and beyond* lanean adierazi zuen itzulpena bera ulertu ahal izateko, beharrezkoa dela itzulpen hori xede-kulturan kokatzea (Toury 2012: 18).

Susan Bassnett eta André Lefevere ere bat datoz baieztapen horrekin. Bi ikerlari horien ustetan, itzulpenak aztertzeko ez da nahikoa jatorri-testuaren eta xede-testuaren arteko konparaketa bat egitea testuinguru kulturala kontuan izan gabe (Bassnett & Lefevere 1990: 4-11). Azkenik, Lawrence Venuti teorialari estatubatuarra dugu. Itzulpenak aztertzeko garaian, lan horiek dagokien testuinguru soziohistorikoan kokatu behar direla nabarmentzen du teorialari honek (Venuti 1998: 29).

Itzulpenak aztertzerako orduan, beraz, badira faktore linguistikoez gain, kontuan izan beharreko bestelako faktoreak ere. Itzulpenetan eragina duten faktore horien artean, Jeremy Munday teorialariak honako eragileak zerrendatzen ditu: gobernuak eta

erakunde politikoak, literatur agentziak, argitaletxeak, literatur lanak merkaturatzeaz arduratzen diren taldeak, kritikariak eta itzultzaileak berak (Munday 2012: 217) .

Mundayren (2012) arabera, eragile horien artean zeresan handiena dutenak argitaletxeak lirateke, horiek baitira azken finean itzulgaiak eta itzultzaileak aukeratzen dituztenak, itzultzaileei jarraibideak ematen dizkietenak eta orokorrean itzulpenei lotutako alderdi ezberdinen inguruko erabakiak hartzen dituztenak. Ildo horretatik, nabarmentzen du itzultzaileek eta argitaletxeek literatur itzulpenetan duten eragina aztertzeke aukeretako bat argitaletxeekin harremanetan jartzea dela:

«The invisibility of the translator and the relative power of the publisher and the translator, can be investigated in a variety of ways [...] [such as] interviewing the publishers, editors and agents to see what their aims are in publishing translations, how they choose which books to translate and what instructions they give to translators».
(Munday 2012: 231)

Euskal literatur itzulpeni dagokienez, orain arte egindako azterketa gehienek itzulpenean bertan jarri izan dute arreta, baina gutxitan aztertu izan da itzulpen bat egiten den testuinguru soziolinguistikoak zer nolako eragina duen itzulpen horietan; hau da, gutxitan aztertu izan da zer eta nork itzuli duen, zein baldintzatan, zergatik itzuli diren lan jakin batzuk, zer nolako eragina duten une bakoitzeko hizkuntza-politikek edo gizartearen ohiturek egiten diren itzulpenetan... Mota honetako azterketen adibide dugu 2009. urtean Manuel López Gasenik 1976tik 2008ra bitarteko euskal itzulpenen inguruan argitaratutako inbentarioa¹ eta lan honen bidez gure ekarpena egin nahi izan diogu López Gasenik hasiera eman zion azterketa-esparruari.

¹ Lan osoa EIZIEren webgunean dago ikusgai:
<http://www.eizie.eus/Argitalpenak/inbentarioa/inbentarioa.pdf>

3. METODOLOGIA

Lehenengo atalean aipatu den bezala, literatur itzulpenetan argitaletxeek duten papera kontuan hartuta, lan hau egiteko, euskarazko literatur itzulpenak argitaratzen dituzten argitaletxeekin harremanetan jartzea erabaki genuen.

Hurrengo urratsa gure aztergaia mugatzea izan zen. Literaturaren barnean, bi talde nagusi berezi izan dira: haur eta gazteentzako literatura alde batetik, eta helduentzako literatura bestetik. Espazio-mugengatik biak jorratzea ezinezkoa zenez, eta lehenengo multzoko lanek ezaugarri bereziak izaten dituztela kontuan izanik, lan hau helduen literaturara zuzentzea erabaki genuen.

Lan hau egiteko, euskal itzulpenak argitaratzen dituzten 14 argitaletxerengana jo genuen laguntzeko prest leudekeen galdetuz, baina arrazoi desberdinengatik, azkenean, horietako 10ekin baino ez dugu lortu harremanetan jartzea. Gradu Amaierako Lan honetan bildutako datuak eta bertatik ateratako ondorioak, beraz, 10 argitaletxe horien erantzunetan oinarrituta ateratakoak dira. Hona hemen gure galderari erantzun dieten argitaletxeen zerrenda:

Alberdania	Meettok
Elkar	Pamiela
Erein	Pasazaite
Igela	Susa
Maiatz	Txalaparta

1. taula. Elkarrizketatutako argitaletxeen zerrenda

Eskertzekoa da argitaletxe horiek gure ikerketan laguntzeko agertu duten prestutasuna eta interesa, horien laguntzarik gabe nekez aterako baitzen lan hau aurrera.


Elkarrizketetarako erabilitako kanalarri dagokionez, gure lehen asmoa elkarrizketak aurrez aurre egitea bazen ere, argitaletxe batzuek hala eskatuta, bestelako bideak ere erabili behar izan ditugu. Horrela, azkenean, 6 izan dira aurrez aurre egindako elkarrizketak, 2 telefono bidezkoak eta beste 2 idatziz egindakoak (galdetegia pasa eta erantzunak idatziz jaso genituen).

Galdetegiari dagokionez, zenbait galdera prestatu genituen aurrez argitaletxe guztiei galdera berak egin eta itzulpen-prozesuaren inguruan zenbait ondorio atera ahal izateko

(ikusi I. eranskina). Galdetegia bost atal nagusitan banatuta dago: lehen atala argitaletxe bakoitzaren datu orokorren ingurukoa da; hurrengo bi atalak itzulgaien eta itzultzaileen aukeraketari zuzendutakoak dira; laugarren atalak elementu paratestualei lotutako galderak biltzen ditu; eta azkenik, itzulpenen harreran jartzen da arreta, horretarako itzulpenen salmentak aztertuz.

Behin argitaletxe guztiei elkarrizketa egindakoa, datu guztiak bildu eta ondorioak atera genituen gaur egungo joera nagusiak identifikatzeko asmoz. Ondorio horiekin gaur egun euskal literatur itzulpenak bizi duen egoeraren inguruko ikuspegi orokor bat ematen ahalegindu gara. Hala ere, aitortu behar da ateratako ondorio horiek ezin direla ondorio absolutu gisa hartu, azterketa honek ez dituelako argitaletxe guztiak bere baitan hartzen, eta horretarako, azterketa sakonago bat egitea ezinbestekoa litzatekeelako.

4. ELKARRIZKETATUTAKO ARGIALETXEEN DATU OROKORRAK



1. grafikoa. Elkarrizketatutako argialetxeen sorrera-urteak

Alberdania:

Alberdania argialetxea 1993an sortu zen adin guztietarako literatur lanak argitaratzeko helburuz, eta 25 urte hauetan, 600 lanetik gora argitaratu ditu argialetxe honek, 400 idazle baino gehiagorenak. Lan horien artean, sormen-lanak (SL) nahiz itzulpenak aurki ditzakegu, bai euskarara eta bai gaztelaniara egindakoak. Alberdaniaren ekoizpen osoaren % 55 SLei dagokie eta gainerako % 45² itzulpenei; beraz, esan daiteke itzulpenek argialetxe honetan duten pisua nahiko altua dela.

Elkar:

Elkar da elkarrizketatutako argialetxeen artean ibilbiderik luzeena izan duen euskal argialetxea. Hegoaldean, Frankismoa zela-eta euskaraz argitaratzea debekaturik zegoenez, Iparraldean eman zituen lehen urratsak argialetxe honek 1972an, eta 1977an, diktadura amaitu eta bi urtera, hasi zuen bere jarduna Hegoaldean. Argialetxe honen helburuak euskara eta euskal kultura indartu eta zabaltzea izan ziren.

Hasiera batean, euskal SLen eskasiaren ondorioz, itzulpenek pisu handia izan zuten argialetxe honen ekoizpenean. Gaur egun SLak eta itzulpenak argitaratzen jarraitzen dute, baina esan genezake hasierako urteetako joera hori irauli egin dela, gaur egun

² Ez da euskarara egindako itzulpenen portzentajea, gaztelaniara egindako itzulpenak ere ehuneko horren barruan daude; % 7 euskara-gaztelania konbinaketan egindako itzulpenei dagokie eta gainerako % 38a beste hizkuntzetatik egindako itzulpenei. Gaztelania-euskara konbinaketan egindako itzulpenak, aldiz, salbuespenak dira, gehienak Literatura Unibertsala Bilduman argitaratutakoak.

itzulpenek SLeK baino askoz pisu txikiagoa baitute (ekoizpenaren % 15 inguru). Itzulpenen hizkuntzari dagokionez, Elkar argitaletxeak euskarara ekartzen ditu beste hizkuntzetan idatzitako lan literarioak.

Erein:

Erein argitaletxea 1976an sortu zen Donostian, hasiera batean, helburu pedagogikoei lotuta. Hezkuntzara bideratutako euskal materialetan zegoen hutsuneaz jabetuta, eskoletarako testu egokiak argitaratzea izan zuen xede lehen urte horietan, baina lan pedagogiko horiek argitaratzen hasi eta berehala, literatur testuak argitaratzeari ere ekin zion. SLez gain, itzulpenak ere argitaratzen ditu gaur egun argitaletxe honek (gehienbat euskarara egindakoak), nahiz eta Elkar argitaletxearen kasuan bezala, lehenengok pisu handiago hartzen duten³.

Igela:

1989an, Xabier Olarra, Joseba Urteaga eta Jose Manuel Gonzalez hirukoteak Igela argitaletxea sortu zuen literatura argitaratzeko helburuz, eta bereziki, itzulpenen bitartez mundu osoko erreferentziazko obrak euskarara ekartzeko helburuz. Hasiera-hasieratik, beraz, itzulpenekiko interes handia erakutsi zuen Iruñean egoitza duen argitaletxe honek –ekoizpen osoaren % 97 itzulpenek osatzen dute, guztiak euskarara egindakoak–, eta dagoeneko 140 lan ekarri dituzte euskarara hizkuntza ezberdinetatik⁴.

Maiatz:

Elkarrizketatutakoen artean Iparraldekoa den argitaletxe bakarra dugu Lucien Etxezaharreta eta Itxaro Bordak 1981. urtean euskal literatur sorkuntza bultzatzeko asmoz sortutako Maiatz argitaletxea. Argitaletxe honen hasierako helburua ez zen itzulpenak argitaratzea, baizik idazleei (eta nagusiki Iparraldeko idazleei) euskara hutsean argitaratu ahal izateko espazio bat eskaintzea. Liburuak argitaratzen hasi

³Argitaletxe honen kasuan ez dugu itzulpenek ekoizpen osoan duten pisuaren inguruko zifra zehatzik.

⁴ 2018ko apirilaren 25eko datuak.

aurretik, Maiatz aldizkarian⁵ argitaratu ziren lan horiek, baina SL horiekin batera, itzulpenak ere tartekatuz joan ziren. 1982an kaleratu zen Maiatz aldizkariaren lehen alea eta gaurdaino 65 ale kaleratu dituzte.

Bi urte geroago, 1984an, liburuak argitaratzeari ekin zioten, kasu honetan ere SLei garrantzi handia emanez. Ordutik 141 liburu argitaratu dituzte, horietatik 110 euskarazko SLak dira, 23 bertsio elebidunak (azterlan honetarako gehien interesatzen zaizkigunak, itzulpenek duten paperagatik), eta 8 ikerketari lotutakoak (Zehar sailean argitaratuak)⁶.

Beste argialetxe askoren kasuan gertatzen den bezala, itzulpenak ez dira soilik hizkuntza batera egindakoak, baina kasu honetan, euskarara egindako itzulpenak frantsesezko itzulpenekin tartekatzen dira (ez dugu ahaztu behar Iparraldean horixe dela hizkuntza ofiziala). Aipagarria da, beste argialetxeen aldean, argialetxe honek ez dituela itzulpenak hizkuntza bakarrean argitaratzen, baizik bertsio elebidun eta eleanitzetan.

Meettok:

Meettok argialetxea 2004an sortu zen Donostian literatur lanak (ez elitistak, baina bai kalitatezkoak) argitaratzeko helburuz, eta 2006an argitaratu zuen bere lehen liburua (*Groucho eta ni*, ingelesetik euskaratua). Geroztik, 3 eta 5 liburu artean argitaratzen dituzte urtero. Lan horien artean, SLak nahiz itzulpenak aurki daitezke (bi kasuetan euskarazkoak edo gaztelaniazkoak), baina kasu honetan, itzulpenak dira pisu handiena hartzen dutenak: orain arte argitaratu dituzten 40 lanetatik 36 itzulpenak dira, eta euskarazko proportzioari dagokionez, 21 lanetik 19 dira itzulpenak⁷. Hau ikusirik, esan daiteke euskaratutako literatur lanek pisu handia hartzen dutela argialetxe honetan, ia ekoizpen osoaren erdia osatzen baitute euskarazko itzulpenek.

⁵Aldizkariaren lehen 35 aleak Armiarmaren Literatur Aldizkariaren Gordailuan kontsulta daitezke. <http://andima.armiarma.eus/maia/aurki.htm>

⁶ 2018ko apirilaren 5eko datuak.

⁷ 2018ko apirilaren 25eko datuak.

Pamiela:

Argialetxe honek Pamiela literatur aldizkariaren⁸ argitalpenari lotuta eman zituen bere lehen urratsak. 80ko hamarkadako egoera kultural eta soziala irauli nahian, idazle eta literaturzale talde batek aldizkari bat sortzea erabaki zuen Iruñeko Auzolan liburu-dendan, eta hortxe kokatuko genituzke Pamiela argialetxearen hastapenak. Aldizkari horretan, euskarazko nahiz gaztelaniazko artikulua argitaratzen ziren, horien artean Bernardo Atxaga, Jose Mari Iturralde, Pello Lizarralde edo Pablo Antoñana idazle ezagunenak. 1993an utzi zion Pamielak aldizkaria argitaratzeari.

1984an, aldizkariarekin batera, liburuak argitaratzeari ekin zioten, eta geroztik 1000 titulutik gora argitaratu dituzte: % 55 gaztelaniaz eta % 45 euskaraz. Itzulpenei dagokionez, pisu txikia dute bertako produkzioari lehentasuna eman baitiote hasieratik. Itzulpenen barruan, aipagarria da azken urteetan haur-literaturako lanak, eta bereziki album ilustratuak, itzultzea izan dutela lehentasun, euskal literaturan mota horretako lanetan hutsune garbia nabaritzen baitzuten. Helduen literaturari dagokionez, NorDaNor datu-basearen arabera, 23 lan itzuli dituzte euskarara 34 urte hauetan (liburuak argitaratzen hasi ziren urtea hasiera-puntu gisa hartuta)⁹; hau da, itzulpenen proportzioa ez da urtean lan batera ere iristen.

Pasazaite:

Elkarrizketatutako argialetxeetan berriena da. Xabier Queiruga galiziarrek 2012an abiarazi zuen argialetxe hau Galizian ezagutzen zituen antzeko proiektu batzuek bultzatuta. Geroztik, bizpahiru liburu argitaratzen ditu urtero, guztiak itzulpenak eta guztiak euskaraz; esan genezake, beraz, % 100ean euskarazko itzulpenak argitaratzen dituen argialetxe bakarra dela.

2016an, Ipar Amerikako lanak euskaratu eta argitaratzeko asmoz, 43. Ipar Paraleloa izeneko bildumari hasiera eman zion.

⁸ Aldizkaria ikusgai Armiarmako Literatur Aldizkariaren Gordailuan.

<http://andima.armiarma.eus/pami/aurki.htm>

⁹ 2018ko apirilaren 25eko datuak.

Susa:

Beste bi kasutan ikusi dugun bezala, Susaren hasierako jarduna 1980an sortutako Susa aldizkariari lotuta egon zen¹⁰. Argitaletxe gisa, Susak 1983an eman zion hasiera bere ibilbideari Xabier Montoiaren *Anfetamiña* poesia-liburuarekin. Geroztik, genero ezberdinetako (narrazioa, saiakera eta poesia) lanak argitaratu izan badira ere, nabarmendu behar da argitaletxe honek beti izan duela nolabaiteko sentiberatasun bat poesiarekiko. Horren adibide da, Koldo Izagirrek 2000-2002 urteen bitartean argitaratutako XX. Mendeko Poesia Kaierak bilduma, 40 euskal poetaren poemak biltzen dituen antologiata. Koldo Izagirreren ideia horri jarraiki, gauza bera egitea pentsatu zuten itzulpenekin eta horrelaxe sortu zen 2014an Munduko Poesia Kaierak bilduma (MPK), Beñat Sarasolaren zuzendaritzapean. Lau urte hauetan, 26 antologia argitaratu dituzte dagoeneko, guztiak euskaraz –orain arte hiruna ale kaleratzen zitzuten udazkenean eta udaberrian, baina hemendik aurrera bi izango dira–. MPK bildumarekin lotu nahi dena da hizkuntza eta kultura ezberdinetako poeta kanonikoen lanak ezagutzera ematea antologiaka. Bilduma horretatik kanpo Susak argitaratzen duen guztia SLei dagokie.

Txalaparta:

Tafallan egoitza duen argitaletxe honek 30 urte beteko ditu aurten. Euskal argitaletxe libre eta independente bat izateko asmoz sortu zen 1988an eta urtean 40 bat liburu argitaratzen dituzte (SLak eta itzulpenak barne), % 35 inguru euskaraz, eta gainerako % 65a gaztelaniaz. Argitaratzen dituzten liburu guztien % 15 - % 20 itzulpenak dira eta horiek gaztelaniara nahiz euskarara egindako itzulpenak izaten dira. Euskarazko ekoizpenean, itzulpenen proportzioak handiagoak dira SLenak baino; euskaraz argitaratzen dituzten liburuen erdiak itzulpenak izaten dira gutxi gorabehera (argitaratzen diren 12-15 euskarazko liburutik 6-7 itzulpen), nahiz eta urtearen arabera proportzio horiek aldatuz joan.

¹⁰ Susak kaleratutako 30 aldizkariak Armiamako Literatur Aldizkariaren Gordailuan daude ikusgai.
<https://andima.armiama.eus/susa/aurki.htm>

5. EUSKAL ITZULPENGINTZAREN IKUSPEGI OROKORRA

5.1. Argitalpen-motak: sormen-lanak eta itzulpenak

Elkarrizketatutako argialetxeen artean, itzulpenak nagusi diren bi argialetxe ditugu: alde batetik, aurreko atalean ikusi bezala, % 100ean eskusiboki itzulpenak argitaratzen dituen Pasazaite argialetxea dugu, eta bestetik Igela argialetxea (ekoizpen osoaren % 97 osatzen dute itzulpenek argialetxe horretan). Joera nagusia, ordea, itzulpenak SLekin uztartzen dituzten argialetxeak dira. Argialetxe horien barruan, bada itzulpenek SLekin baino pisu handiago duten argialetxe bat (Meettok), baina oro har SLekin itzulpenek baino pisu handiagoa hartzen dute argialetxe gehienetan (Alberdania, Elkar, Erein, Maiatz, Pamiela, Susa eta Txalaparta). Azken talde honen barruan ere alde handiak daude, itzulpenak ia-ia anekdotikoak izatetik (Pamielaren kasua) ekoizpen osoaren % 45 osatzeraino (Alberdania).

Itzulpenen barruan, xede-hizkuntzari erreparatuta, bi azpitaldetan sailka genitzake argialetxeak: alde batetik euskarazko itzulpenak baino argitaratzen ez dituztenak (Elkar, Igela, Susa, Pasazaite), eta bestetik, euskarara eta bestelako hizkuntzetara egindako itzulpenak argitaratzen dituztenak —gehienetan gaztelaniara, Maiatz argialetxea salbuespen gisa hartuta— (Alberdania, Erein, Maiatz, Meettok, Pamiela eta Txalaparta).

Argialetxea	Sormen-literatura	Itzulpenak	Itzulpenak euskaraz soilik ala beste hizkuntzetan ere?
ALBERDANIA	Bai	Bai	Euskaraz eta gaztelaniaz
ELKAR	Bai	Bai	Euskaraz soilik
EREIN	Bai	Bai	Euskaraz eta gaztelaniaz
IGELA	Bai	Bai	Euskaraz soilik
MAIATZ	Bai	Bai	Euskaraz eta frantsesez nagusiki
MEETOK	Bai	Bai	Euskaraz eta gaztelaniaz
PAMIELA	Bai	Bai	Euskaraz eta gaztelaniaz
PASAZAITE	Ez	Bai	Euskaraz soilik
SUSA	Bai	Bai	Euskaraz soilik
TXALAPARTA	Bai	Bai	Euskaraz eta gaztelaniaz


2. taula. Itzulpenen presentzia euskal argialetxeetan

5.2. Jatorri-hizkuntzak: ingelesaren nagusitasuna

Jatorri-hizkuntzei (JH) dagokienez, ingelesa da euskarara ekartzen diren lanen hizkuntza-iturri nagusia. 10 argitaletxetik 8k aipatu dute ingelesa JH gisa, 6k frantsesa, 4k gaztelania, 3k alemana, 2k portugesa eta batek galegoa.

Jatorri-hizkuntzetan aniztasun handiena duten argitaletxeak Pasazaite eta Susa argitaletxeko MPK bilduma dira¹¹. Pasazaite argitaletxeak ahalegin berezia egiten du JH ahalik eta heterogeneo eta ugariak izaten, eta argitaratutako 12 lanetan 9 JH ezberdin erabili dira¹². MPK bildumaren kasuan ere, 11 hizkuntzako lanak itzuli dituzte orain arte argitaratutako 26 kaieretan¹³.

Jatorri-hizkuntzekin amaitzeko, aipagarria da Maiatz argitaletxearen kasua, eta bereziki, argitaletxe honek hizkuntza gutxituekiko duen sentiberatasuna. Argitaletxe honek argitaratutako itzulpenetan, euskararen antzeko egoeran dauden hizkuntzetatik (okzitaniera, bretoiera, galestarra etab.) itzultzeko joera garbi bat ikus daiteke.



2. grafikoa. Euskaratutako lanen JHak

¹¹ Hemendik aurrera Susa argitaletxeari erreferentzia egiteko, Munduko Poesia Kaiarak bildumaz hitz egingo dugu, horixe baita Susa argitaletxearen barruan itzulpenera bideratutako bilduma bakarra; gainerakoak sormen-lanak dira.

¹² 2018ko apirilaren 25eko datuak.

¹³ 2018ko apirilaren 25eko datuak.

5.3. Generoa: narrazioa guztiaren gainetik

10 argitaletxetatik 8 bat datoz narrazioa dela euskarara ekartzen den genero nagusia. Poesia eta saiakera-lan batzuk ere itzultzen dira, baina narrazioaren aldean, oso proportzio txikietan. Joera horren salbuespen dira Maiatz eta MPK bilduma. Maiatz argitaletxean egiten diren itzulpen gehien generoa poesia da (% 65 inguru), eta MPK bildumari dagokionez, itzulpenen % 100 dagokio poesiari.

Narrazioaren barruan ere, bada nabarmendu beharreko azpigenere bat, eleberriarena hain zuzen ere; izan ere, narrazioa nagusi den 8 argitaletxetatik 5ek azpimarratu zuten eleberrien nagusitasuna. Eleberriekin batera ipuinak ere aipatu zituzten bi argitaletzek.

5.4. Zeharkako itzulpena edo zubi-hizkuntzen erabilera

Zubi-hizkuntzez (ZH) hitz egiten hasi aurretik, bada argitu beharreko kontu bat gaizki-ulertuak ekiditeko. Izan ere, ZHez galdetuta, argitaletxe askok aipatu dute itzultzaileek beste hizkuntza batzuetako bertsoiak konparatzeko ohitura dutela. Baina atal honetan ZHez hitz egitean esan nahi dena da itzultzaileak JH ezagutu gabe eta % 100ean beste hizkuntza batzuetara egindako itzulpenetan oinarrituta egindako itzulpenak direla; hau da, jatorri-testua ez den bigarren testu batetik abiatuta egindako itzulpenak direla.

Behin ZHak zer diren argituta, azter dezagun literatur testuak euskarara itzultzean mota honetako itzulpenik egiten ote den. ZHen erabilera lotuta dago euskaratzen diren lanen JHeekin. Ikusi dugun bezala, oro har, euskarara Europa mendebaldeko eta Ipar Amerikako hizkuntza hegemonikoetatik itzultzen denez (bereziki ingelesetik eta frantsesetik), badira hizkuntza-konbinazio horiek ezagutzen dituzten itzultzaileak, eta beraz, ez da ZHrik erabili behar izaten. Hizkuntza horietatik ateraz gero, ordea, zailtasunak izaten dira itzultzaileak aurkitzeko, bai Europa ekialdeko hizkuntzekin, eta zer esanik ez Asia eta Afrikako hizkuntzekin; beraz, zenbat eta hizkuntza urrunagokoa izan, orduan eta ohikoagoa da ZHak erabiltzea, ez baitago hizkuntza horiek ezagutzen dituen euskal itzultzailearik.

Baina esan bezala, hizkuntza horietatik itzultzeko joera handirik ez dagoenez, argitaletxe batek bakarrik aitortu du ZHak erabiltzea ohikoa dela. Bada orain arte ZHrik inoiz erabili ez duen argitaletxe bat eta gainerako zortzi argitaletxeek salbuespentzat jo dute ZHen erabilera. ZHak zein kasutan erabili diren galdetuta, honako hizkuntza

hauetatik itzultzeko erabili izan direla adierazi dute: arabiera, galestarra, hebraiera, indonesiera, islandiera, lituaniera, serbiera eta txinera. Lehen aipatu bezala, Pasazaite argitaletxearen kasuan, hizkuntza nagusi horiez gain, hizkuntza periferikoagoetan idatzitako lanak itzultzen dira, eta beraz, ZHen erabilera ohikoagoa da beste argitaletxeen aldean (itzulitako 12¹⁴ lanetatik 4tan erabili dira ZHak).

ZHak erabili diren kasuetan, editoreek diote itzultzaileek ezagutzen dituzten eta eskuragarri dauden hizkuntzetako bertsoak erabiltzen dituztela, baina nagusiki ingelesezko, frantsesezko eta gaztelaniazko itzulpenak hartzen dituztela erreferentzia gisa.

Hala ere, badira jatorrizko hizkuntza ez horren hegemonikoetatik euskarara zuzenean itzulitako lanen adibide batzuk: Alberdania argitaletxean argitaratutako *Ezer ez lana*, Juan Mari Mendizabalek zuzenean danieratik itzulia; Alberdania eta Ereinek Batera Sailean argitaratutako *Garbiketa*, Joseba Ossa eta Mia Rissanen-ek finlandieratik itzulia; euskal baleazaleen inguruko *Ariasman* liburua, Maia Ossa Rissanen-ek itzulia, hau ere finlandieratik; eta MPK bildumaren barruan, japonieratik zuzenean itzuli zituen Hiromi Yoshida japoniarrak Chuya Nakahara-ren poemak.

¹⁴ Lagin txikia da, argitaletxeak ibilbide laburra izan duelako oraindik ere, baina datu horrek ondo islatzen du Pasazaite argitaletxeak ZHak erabiltzeko duen ohitura. Interesgarria litzateke hemendik urte batzuetara berriro ere argitaletxe honen katalogoa aztertzea joera hau mantentzen den ikusi ahal izateko.

6. ITZULGAIEN AUKERAKETA

Liburu bat argitaratzeak, eta zer esanik ez itzultzeak, eskatzen duen denbora kontuan izanik, eta horrez gain, diru-laguntzak jaso ahal izateko aurrez diru-laguntza ematen duen erakundeari argitalpenen-zerrenda bat helarazi behar zaionez, argitaletxeek urtebeteko (edo kasu batzuetan hortik gorako) aurrerapenarekin erabakitzen dute zer itzuliko den eta urteko plangintza bat zehazten dute (itzulpenez gain, baita argitaratuko diren SLena ere). Hala ere, gerta daiteke ondoren plangintza hori % 100ean ez betetzea –argitaratzeko asmoa zuten libururen bat azkenean argitaratzen ez delako edo aurreikusita ez zegoen lanen bat argitaratzea erabakitzen dutelako–. Elkarrizketatutako argitaletxeen artean bakararra da itzulpenei dagokienez planifikaziorik gabe funtzionatzen duena eta jasotako proposamenen arabera argitalpenak egiten dituen.

Normalean, itzulgaien aukeraketa hori argitaletxeen esku egoten da. Hala ere, argitaletxe guztiek aipatzen zuten batzuetan proposamenak ere jasotzen dituztela kanpotik lan jakin batzuk itzultzeko eta horrelakoak ere argitaratu izan dituztela (beti ere argitaletxe bakoitzaren ildoarekin bat etorritik gero). Txalaparta argitaletxeak esaterako horrelako proposamen ugari jasotzen dituela adierazi zigun, eta izan dela behin itzulpena prest duela argitaratzeko eskatu dionik ere.

Joera honen salbuespentzat har genitzake beste behin ere Maiatz argitaletxea eta MPK bilduma. Lehenengoak SLei lehentasuna ematen dienez (gogora dezagun helburu horrekin sortu zela argitaletxe hau), proposamenak jaso ahala argitaratzen ditu itzulpenak, eta beraz, kasu gehienetan kanpotik jasotako proposamenak izaten dituzte itzulgai edo jada amaituta iristen zaizkien itzulpenak argitaratzen dituzte. MPK bilduman, editorearen eta itzultzailearen artean aukeratzen dute autorea, eta ondoren, itzultzaileak du egile horren zein poema itzuli nahi dituen erabakitzeke aukera.


Ikusi dugu, beraz, itzulgaien aukeraketan argitaletxeek zeresan handia dutela, baina zertan oinarritzen dira erabaki horiek hartzeko orduan? Elkarrizketatutako argitaletxeek itzulgaiak aukeratzeko irizpide ezberdinak aipatu dituzte. Gehien errepikatu diren irizpideak kalitatea eta interes edo erakargarritasun literarioa izan dira (10 argitaletxetatik 6k aipatu dituzte faktore horiek). Interes literarioaz hitz egiten dugunean, izan daiteke argitaletxeak berak interes berezia duela lan jakin bat itzultzeko, edo gizartearen aldetik lan horrekiko interesa egon daitekeela sumatzen dela eta horregatik erabakitzen dela lan horren itzulpena egitea.

Bi argitaletzek interes komertziala ere aipatzen zuten; hau da, merkatuan ondo funtziona dezaketen lanak hautatzen ahalegintzen dira. Azken finean, argitaletxeen jarduna merkatuaren baldintzapean dago, eta salmentak eskasak badira, argitaletxeek ez dute baliabide ekonomiko nahikorik izango hurrengo lanek sortutako gastuak ordaindu ahal izateko. Argitaletxe batek esana da baita ere gainerako merkatuetan (batez ere gaztelaniazko merkatuan) lan batek zer nolako ibilbidea izan duen aintzat hartzen dutela lan hori euskaratu edo ez erabakitzeko. Honi lotuta, bi argitaletzek onartu dute jatorrizko lanaren luzera erabakigarria izan daitekeela lan bat itzuli edo ez erabakitzeko orduan¹⁵ (zenbat eta lan luzeagoa, orduan eta altuagoak baitira inprenta-kostuak). Horrez gain, eta alderdi ekonomikoarekin amaitzeko, argitaletxe batek kontuan izaten du lan jakin bat itzultzeko erakunderen baten diru-laguntzarik jasoko ote duen.

Beste bi argitaletzek itzulpenen aniztasunari erreparatzen diote beren plangintza zehazteko orduan, eta ahalegintzen dira ahalik eta hizkuntza eta kultura gehienetako lanak itzultzen. Honi lotua, beste bi argitaletzek azpimarratzen zuten katalogoan dauden hutsuneak betetzen lagun dezaketen lanak aukeratzen dituztela itzultzeko: gai edo genero jakin batekoak (ordura arte jorratu ez direlako), egile emakumeen lanak (erabaki hori berariaz hartu ezean, *de facto* gizonezkoen lanak nagusi direlako), herrialde jakin bateko literatura (esaterako afrikar literatura)...

Azken bi irizpide ere badira argitaletxe batek itzulgaiak aukeratzekoan kontuan hartzen dituenak: jatorrizko lanaren argitaratze-urtea (argitaletxearen helburuetako bat lan garaikideak itzultzea baita) eta hizkuntza-konbinazio jakin batean itzultzeko prest egongo den itzultzailerik ba ote den.

¹⁵ Esan behar da gainera bi argitaletxe horietako batek aitortu zuela jatorrizko lanaren luzera jatorrizko lana aukeratzeko orduan gehien baldintzatzen duen faktorea dela.



3. grafikoa. Itzulgaiak aukeratzeko irizpideak

Ikusi dugun bezala, alderdi ekonomikoak badu zeresana itzulgaien inguruko erabakiak hartzeko orduan. SL bat argitaratzeak sortzen dituen kostuez gain (egile-eskubideak erostea, maketazioa, inprimaketa-kostuak...), itzulpenak kostu gehigarri bat dakar berarekin, itzulpena bera egitea hain zuzen. Horregatik, argitaletxe batek aipatzen zuen apustuak egiten direnean, normalean SLe kin egiten direla, eta ez itzulpenekin, azken hauek inbertsio handia eskatzen baitute.

6.1. Itzulpenek jasotako diru-laguntzak

Itzulpen-kostuen harira, esanguratsua iruditu zitzaigun argitaletxeek itzulpenak argitaratzeko diru-laguntzaren bat jasotzen ote duten aztertzea. Editoreek gehien aipatu duten diru-laguntza Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailak euskarazko argitalpenei ematen dien laguntza izan da. Hala ere komeni da kontuan izatea laguntza hori itzulpenentzat ez ezik SLentzat ere badela (baldintza da erabilitako hizkuntza euskara izatea), eta beraz, ezin kontsidera daiteke itzulpenetara bideratutako diru-laguntza eskusibo gisa. Euskal erakundeen bestelako laguntzak ere aipatu dituzte argitaletxeek: argitaletxe batek Etxepare Institutuaren laguntzak aipatu ditu eta beste batek Euskararen Erakunde Publikoarenak.

Euskal erakundeez gain, euskarara egindako itzulpenek Espainiako Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren eta Frantziako Kultura Ministerioaren laguntzak ere jaso izan

dituzte, eta bi argitaletzek aipatu dute Europar Batasuneko Culture Programme¹⁶ ekimenari esker, zenbait itzulpen egindakoak direla.

Horiez gain, jatorrizko lanaren hizkuntza bultzatzen duten erakundeen laguntza ere jaso dute zenbait itzulpenek, besteak beste, Finlandiako FILI erakundearena, Danimarkako Arteen Kontseiluarena (Statens Kunstråd Danish Arts Council), Galesko literatura-erakunde batena (Cyfnewidfa Lân Cymru), Alemaniako Goethe institutuarena eta Kataluniako Ramon Llull institutuarena.

Hau ikusirik, badirudi itzulpenak egiteko askotariko laguntzak daudela, baina kontu handiz erreparatu behar zaie datu hauei, izan ere, Eusko Jaurlaritzak euskarazko ekoizpenagatik ematen duen laguntzaz gain, gutxi dira itzulpenak finantzatzeko argitaletxeek jasotzen dituzten diru-laguntzak, eta argitaletxeek azpimarratu dute horrelakoak salbuespenak baino ez direla izaten. Eusko Jaurlaritzako laguntzei dagokienez, ikusi dugu laguntza hori ez dela itzulpenak bultzatzeko berariazko laguntza bat, eta gainera, komeni da kontuan izatea baldintza jakin batzuk betetzea ezinbestekoa dela laguntza hori jaso ahal izateko. Horregatik, batez ere argitaletxe txikiek, zailtasunak izaten dituzte laguntza hori lortzeko. Bi argitaletzek, esaterako, tiradaren baldintza aipatzen zuten, laguntza jaso ahal izateko tirada minimo bat baitago¹⁷.

¹⁶ Europako hizkuntzetatik Europako hizkuntzetara egindako itzulpenak finantzatzeko EBak emandako laguntzak.

Igela argitaletxeak laguntza horri esker egindako lanen zerrenda argitaratua du bere webgunean kontsultatu nahi izanez gero: <http://www.igela.eus/language/eu/europe-culture-programa/>

¹⁷ Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian egiaztatu ahal izan dugunez, aurreko tirada minimoa 300 aletan ezarri dute, baina orain arte 600 alekoa (eta hori baino lehen 800ekoa) zen.


<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2018/03/1801176e.pdf> Azken kontsulta-data: 2018ko maiatzaren 29a.

7. ITZULTZAILEEN AUKERAKETA ETA LAN-BALDINTZAK

Itzultzaileak aukeratzeko orduan, hiru joera nagusi bereiz daitezke elkarrizketatutako argitaletxeetan. Lehenik eta behin, badira itzultzaile-talde finko samar batekin lan egiten duten bi argitaletxe (horietako bat ahalegintzen da egile bera itzultzeko itzultzaile berarekin lan egiten). Beste bi argitaletxeren kasuan, aurkakoa gertatzen dela esan genezake; argitaletxe horiek ez dute lehentasun berezirik itzultzaile jakin batzuekiko eta itzultzaile askorekin egin ohi dute lan, horien artean itzultzaile berriekin. Bada hirugarren joera bat aurreko bi taldeen artean kokatuko genukeena: bost argitaletxek jakinarazi digute ez dutela itzultzaile-saldo finkorik eta itzultzaile ugarirekin egin ohi dutela lan, baina itzultzaile horiek kontsakratuak edo esperientziadunak izaten dira normalean¹⁸. Argitaletxe horiek itzuli beharreko lan bakoitzaren ezaugarrietara (hizkuntza-konbinaketa, gaia, autorearen estiloa...) ondoen egokitzen den itzultzailearekin harremanetan jartzen dira, horretarako itzultzaileen ibilbidea kontuan izanik; hau da, argitaletxe hauek aurrez erreferentziak dituzten itzultzaileekin lan egiten ahalegintzen dira.

Azken argitaletxe batek itzultzaileak nola aukeratzen dituen azaltzea geratuko litzaiguke. Lehen aipatu bezala, elkarrizketatutako argitaletxe batek ez du plangintzarik egiten zer itzuliko den erabakitzeke eta proposamenak iritsi ahala (batzuetan jada itzulita, besteetan itzuli gabe) erabakitzen dute itzulpenak argitaratzea. Lana itzuli behar den kasuetan, argitaletxeko norbaitek edo ezagunen batek egiten du itzulpena fabore gisa. Argitaletxeek eurek esplizituki adierazi ez badute ere, argitaletxeen webguneetan eta NorDaNor datu-basean eskuragarri dauden datuetan oinarrituta, ikusi dugu beste zenbait argitaletxetan ere ohikoa dela argitaletxean bertako norbaitek itzultzaile gisa jardutea.

¹⁸ Komeni da aipatzea bost argitaletxe horietako batek aipatu zigula normalean itzultzaile kontsakratuekin lan egiten duela, baina itzultzaile berriei ere lekua egiten ahalegintzen ari direla. Beraz, argitaletxe hau bigarren eta hirugarren multzoaren artean koka genezake.



4. grafikoa. Itzultzaileen aukeraketa argitaletxeetan

Ikusten dugu, beraz, itzultzaileak aukeratzeko orduan indar handia duen faktore bat dela esperientzia: alde batetik, argitaletxeen erdiek baino gehiagok aipatu dute itzultzaileak aukeratzekoan kontuan hartzen duten faktorea dela, eta bestetik, idazle-saldo jakin bat duten argitaletxeen kasuan ere, itzultzaile-talde hori itzulpen-munduan esperientzia duten itzultzaileek osatzen dute. Esperientziaren garrantziak lotura zuzena du itzulpen-laginekin. Argitaletxeek itzultzaile esperientziadunekin lan egiteak esan nahi du argitaletxeek aurrez itzultzaile horien erreferentziak dituztela, hala nola zein hizkuntza-konbinaziotan lan egiten duten, zein motatako lanak itzuli dituzten edo nolako idazketa-estiloa duten. Hori kontuan izanik, gehienetan, argitaletxeek zuzenean esleitzen diote itzulpen-enkargua itzultzaile bati inongo laginik eskatu gabe. Argitaletxeak bat datoz laginak eskatzearena ez dela ohiko joera eta itzultzaile ezezagunak diren kasuetara mugatzen direla.

Aurrerago ikusiko dugun bezala, zenbait kasutan (elkarrizketatuen artean bik aipatu digute), itzultzaileak aukeratzeko orduan zeresana ematen duen beste faktore bat itzulpen-epeak izan daitezke; hau da, itzultzaileak eskatutako eperako itzulpena prest izango duen kontuan hartzen da itzultzaile bat kontratatzerako orduan.

Itzultzaileen profilaz galdetuta, ez dugu ondorio garbirik atera eta aipatu behar da editoreek emandako informazioa beren pertzepzioan oinarritutakoa izan dela, eta ez duela oinarri estatistikorik. Itzultzaileen generoarekin hasiz, bi argitaletxek nabarmendu dute itzultzaile gizonak gailentzen direla (argitaletxe batek luzatutako datuen arabera, itzultzaileen % 80 gizonetzkoak dira), baina esan behar da horietako batek adierazi

zigula generoen arteko alde hori orekatu asmoz, gero eta emakume gehiagorekin lan egiten ahalegintzen ari dela azken aldian. Emakume itzultzaileen nagusitasuna azpimarratu duen argialetxea, berriz, bakarra izan da eta aitortu du hein handi batean “nahita” bilatutako zerbait izan dela. Bost argialetxek diote gizon eta emakumeen kopurua antzekoa dela, (hala ere, horien artean bik diote emakume itzultzaileen kopurua zertxobait altuagoa izan litekeela). Bost argialetxe horietatik batek ezagutzera eman zigun itzultzaileak aukeratzeko orduan genero-aniztasuna egon dadin bilatzen duela, ez soilik itzultzaileei dagokienez, baita jatorrizkoen egileei dagokienean ere¹⁹. Bi argialetxeren kasuan ez dugu itzultzaileen generoaren inguruko daturik.

Adinaz galdetuta, argialetxe batek dio itzultzaile gazteekin ari direla batez ere lanean. Beste bost argialetxek, berriz, eskarmentu handiko itzultzaileekin lan egiten dute oro har (horietako batek aipatu digu, hala ere, itzultzaile gazteei lekua egiten ahalegintzen ari direla azken boladan). Beste bi argialetxeren kasuan, adin guztietako itzultzaileekin lan egiten dute, eta horietako batek adierazi zuen itzultzaile gazteei lekua egitea garrantzitsua iruditzen zaiola. Argialetxe horretako editorearen ustez, itzultzaile berria izateak ez du esan nahi itzultzaile txarra denik; are gehiago, uste du itzultzaile berriek arreta gehiago jartzen diotela oro har testuari. Generoarekin gertatzen den bezala, ez dugu adinari buruzko bi argialetxeren informaziorik.

Itzultzaileen profilarrekin amaitzeko, itzultzaileak literatur itzulpenetik bizi diren edo bestelako lanposturen bat duten aztertu nahi izan dugu. Galdera honi erantzun dioten argialetxeak (8 guztira) bat datoz literatur itzulpenetik bizitzea oso zaila dela eta gutxi batzuek baino ez dutela hori lortzen; hau da literatura itzultzetik bizi diren itzultzaileak salbuespenak baino ez dira. Literatura euskaratzen duten itzultzaile gehienek beste lanposturen bat izaten dute (beste arlo batzuetan itzultzaile gisa edo bestelako lanpostuetan) eta modu paraleloan, literaturzaleak izanik, literatura itzultzen jarduten dute, gehienetan beren denbora libre horretara bideratuz. Aipagarria da, gainera, zenbat eta genero periferikoagoa izan, poesia kasu, orduan eta zailagoa dela itzulpenetik bizimodua ateratzea. Geratzen diren bi argialetxeren kasuan, ez dugu itzultzaileen profesioen inguruko xehetasunik.

¹⁹ Itzulgaien aukeraketa atalean aipatu bezala, itzulgaiak aukeratzeko orduan, bi argialetxek aitortu dute gero eta emakume gehiagoren lanak itzultzen ahalegintzen direla.

7.1. Itzultzaileen baldintzak: epeak eta tarifak

Behin itzultzaileak nola aukeratzaren diren ikusi ondoren, hauek zein baldintzatan lan egiten duten jakin nahi izan dugu, eta horretarako, itzulpenen munduan zeresan handia ematen duten bi alderdi aztertu ditugu: itzulpen-epeak eta itzulpen-tarifak.

Itzulpenen epeak direla-eta, askotariko erantzunak jaso ditugu argitaletxeen aldetik: argitaletxe batek aitortu du epeak ezarri egiten zaizkiola itzultzaileari; ildo beretik, argitaletxe batek onartzen du askotan, kanpo-faktoreek bultzatuta, presa sartu behar izaten diela itzultzaileei; beste argitaletxe baten kasuan, urtebeteko aurrerapenarekin entregatzen zaie itzulgaia itzultzaileei eta ez zaie itzultzaileei itzulpena entregatzeko egun konkreturik zehazten, baina bai urtea; lau argitaletzek diote epeak itzultzailearekin adosten direla (hala ere, lehenago aipatu bezala, horietatik bik nabarmentzen zuten epea erabakigarria izan daitekeela itzultzailea aukeratzeko orduan); azkenik, hiru argitaletzek malgutasuna erakusten dute epeekin eta itzultzaileek eurek markatzen dute itzulpen-erritmoa²⁰.

Epeekiko malgutasun hori lotuta dago hurrengo puntuarekin, tarifekin hain zuzen ere. Itzulpen-epeekin eskuzabaltasuna erakusten duten hiru argitaletxetatik bik aipatzen zuten itzultzaileei emandako ordainsaria EIZIEko tarifetatik behera egoten dela (salbu eta diru-laguntzaren bat jasotzen ez badute, orduan ahalik eta tarifa duinena eskaintzen ahalegintzen baitira itzultzaileari), eta diruz ordaindu ezin duten hori nolabait konpentsatu nahian, epeekin malguak izaten ahalegintzen direla. Epeekin malgutasuna erakustez gain, argitaletxe horietako batek itzultzaileei gustuko dituzten autoreak itzultzeko aukera eskaintzen die. Epea itzultzaileen esku uzten duen hirugarren argitaletxearen kasuan, itzultzaileei ez zaie itzulpenak egiteagatik ordaintzen.

Tarifei dagokienez, beraz, ikusi dugu bi argitaletxeren kasuan itzultzaileen ordainsaria EIZIEk proposatutako tarifetatik behera egoten dela, eta beste baten kasuan, itzultzaileek ez dutela egindako lanagatik irabazi ekonomikorik jasotzen. Elkarrizketatutakoen artean beste bi argitaletzek aitortu digute itzultzaileei EIZIEk proposatutako tarifen arabera ordaintzen dietela. Gainerako bost argitaletxeen kasuan, tarifak itzultzaileekin adosten saiatzen dira, beti ere itzultzaileek eskatzen dutena eta argitaletxeak ordain dezakeena kontuan izanda. bost argitaletxe horietatik lauk adierazi

²⁰ Salbuespenen bat egon daiteke, esaterako, euskarazko bertsioa gaztelaniazkoa baino beranduago argitaratu nahi ez denean, baina oro har itzultzaileek eurek zehazten duten lan-erritmoa.

digute argialetxeak tarifa propioak dituela baina tarifa hori itzultzailearekin adosten ahalegintzen direla.

Tarifen zenbateko zehatzari dagokionez, hiru argialetxek eman digute beren tarifen berri. Horietako bik folioko (bi kasuetan 1800-2000 karaktere bitartean) ordaintzen diete itzultzaileei: lehenak 16-20 euro bitartean folioko, eta bigarrenak 18 euro folioko. Hirugarren argialetxearen kasuan, MPK bildumaren kasuan, antologiako ordaintzen zaio itzultzaileari (300 bat euro antologiako).

MPK bildumako arduradunak onartzen du poesia nekez saltzen dela eta horregatik oso zaila dela itzultzaileei tarifa duin batzuk eskaintzea. Itzultzaileak ere kontziente dira poesiaren merkatuak bizi duen egoeraz, eta irabazi ekonomikoengatik baino militantziagatik egiten dutela aipatzen zigun bildumako arduradunak.

7.2. Itzultzaileek prozesuan zehar jasotako laguntza


Ikerketa honek argi uzten du itzulpena ez dagoela soil-soilik itzultzailearen esku. Itzulpen-prozesuan hainbat eragilek hartzen dute parte eta itzultzaileak etengabeko harremanetan egoten dira beste norbanako batzuekin.

Hasteko, itzultzaileak editoreekin harremanetan egon ohi dira (8 argialetxeren kasua genuke hau) itzulpena egin bitartean zalantzarik sortuz gero, horiek argitu ahal izateko. Editoreekin harremanetan egoteaz gain, argialetxe batek baino gehiagok aipatu du, itzulpen-prozesuan zehar, itzultzaileak egileekin ere harremanetan jartzen direla zenbait kasutan (beti ere posible bada) jatorrizko lanaren inguruan zalantzak argitzeko, baita itzuli beharreko lanaren sorburu-hizkuntza hitz egiten duten jatorri-hiztunekin ere, nagusiki ZHak erabiltzen diren kasuetan.

Behin itzulpena amaitutakoan, itzultzaileen lana zuzentzaileen eskuetatik pasatzen da eta honek itzulpenaren inguruko zuzenketa eta iruzkinak egiten ditu ondoren itzultzailearekin eztabaidatzeko. Elkarrizketatutakoen artean, argialetxe bakarra da itzulpenen zuzenketarik egiten ez duena; argialetxe horren kasuan, itzultzaileari ematen zaio ardura guztia eta itzultzailearen proposamena ez da aldatzen salbu eta akats larriren bat ez badago (gehienetan ortografia-akatsen bat).

Zuzenketak egiten diren bederatzi kasuetatik, ohikoena da (zazpi argialetxetan egiten da horrela) prozesuan zehar itzultzaileak solaskide izan duen editorea arduratzea

zuzenketa-lan horretaz edo argitaletxean bertako norbait (edo kasu batzuetan biak). Joera horren salbuespen ditugu bi argitaletxe; bi kasu horietan, argitaletzekoa ez den hirugarren pertsona bat arduratzen da zuzenketak egiteaz (normalean beste itzultzaile bat), eta itzultzaileek berek aukeratutakoa izaten da²¹.



5. grafikoa. Itzulpenen zuzenketak elkarrizketatutako argitaletxeetan

²¹ Berriki tarifez hitz egiten aritu garenez, aipagarria da argitaletxe horietako batek nabarmendu zuela zuzentzaileei ere ordaindu egiten zaiela. Beste argitaletxearen kasuan, ez dugu horren inguruko informaziorik jaso.

8. ITZULTZAILEEN IKUSGARRITASUNA: ELEMENTU PARATESTUALAK

Atal honetan, irakurleari itzulpen baten aurrean dagoela jakinarazten dioten elementu paratestualak aztertu nahi izan dira, eta baita literatur itzultzaileei ematen zaien ikusgarritasuna ere. Horretarako, hiru alderdi aztertu ditugu: lehenik eta behin, aipatu berri dugun itzultzaileen ikusgarritasunari lotuta, itzultzailearen aipamena liburuko zein ataletan egiten den aztertu dugu; bigarrenik, jatorrizko lanaren izenburua aipatzen den (eta hala bada, non) jakin nahi izan dugu; eta azkenik, interesgarria iruditu zaigu ZHak erabiltzen diren kasuetan horiek zehazten ote diren edo ez aztertzea (eta hala bada, non egiten den aitortza hori).

Itzultzailearen izenarekin hasiz, argialetxe guztiek adierazten dute liburuko atalen batean itzulpena nork egin den eta aipamen hori egiteko hiru leku adierazi dituzte: kreditu-orria, barruko azala (“portadilla” delakoa) eta kanpoko azala. Itzultzailearen izena kreditu-orrian adierazten duten argialetxeak bederatzi dira, eta beraz, kreditu-orrian itzultzailearen izena aipatzea ohiko joeratzat har genezake. Barruko azalari dagokionez ere, bederatzi argialetxeek aipatzen dute liburuko zati horretan liburua nork itzuli duen. Baina zalantzarik gabe, itzultzaileari ikusgarritasun handiena ematen dion liburuko atala kanpoko azala da, horixe baita irakurleen begietan atalik agerikoena. Elkarrizketatutako argialetxeen artean, MPK bilduman eta Elkar, Igela (Literatura eta Enigma sailetan), Pasazaite, Txalaparta eta Meettok argialetxeek argitaratutako liburuetan ikus daiteke itzultzailearen izena azalean. Azken bi argialetxeen kasuan, aipatu behar da ez dagoela joera homogeneorik itzultzailearen izena azalean aitortzeari dagokionez, lan batzuetan aipamena egiten delako, baina beste batzuetan ez. Erabaki hori hartzeko orduan, bi irizpide aipatu dituzte argialetxeek: argialetxeari esanguratsua iruditzen zaion itzultzaile horren izena azalean aipatzea edo itzultzaileak berak bere izena azalean agertzerik nahi duen.

Itzultzailearen izenaz aparte, normalean ez da itzultzailearen bestelako daturik txertatzen liburuetan. Pare bat argialetxeek aipatu dute noiz edo noiz txertatu izan direla hitzaurrean itzultzailearen edo itzulpenaren inguruko datu batzuk, baina oso kasu bakanetan. Elkarrizketatutakoen artean, argialetxe bakarrean ikus daiteke itzultzaileen datuak txertatzeko ohitura, Pasazaite argialetxearen kasuan hain zuzen. Argialetxe

honek bere webgunean²² aitortzen duen bezala, ahalegin berezia egiten du itzultzaileei ikusgarritasuna emateko asmoz:

«Pasazaiteko liburuetan itzultzailea ez [d]a kredituetan agertzen den izen bat soilik, merezi duen garrantzia eman nahi [d]iogu, leku berezi bat eman nahi baitiogu gure web orrian eta presentzia eraginkorra Pasazaiteren jardueretan».

Idea horri jarraiki, Pasazaite argitaletxeak itzultzailearen inguruko biografia labur bat gehitzen du hegalean egilearen biografiarekin batera, eta horrez gain, liburu bakoitzaren itzultzaileak itzulpen-prozesuan zehar izandako inpresio, gogoeta, zailtasun eta bitxikerien inguruko azalpenak ematen dituen bideo bat (6-7 minutu ingurukoa) grabatu eta Pasazaiteko webgunean jartzen dute ikusgai.

Jatorrizko lanaren izenburuari dagokionez, 10 argitaletxetatik 8k adierazten dute kreditu-orrian jatorrizko lanaren izenburua. Jatorrizkoaren izenburua kreditu-orrian zehazten ez duten bi argitaletxeak Maiatz eta MPK bilduma dira. Hala ere, komeni da kontuan hartzea argitaletxe horietako lanek ezaugarri bereziak dituztela gainerakoek aldean: lehenak bertsio elebidun edo eleanitzak egiten dituzenez, itzulpenarekin batera, jatorri-testua ere irakurleen eskura jartzen du, eta MPK bildumari dagokionez, poesia-antologiak argitaratzen dituztenez, poetaren izena baino ez da adierazten (hau handiz azalean).

Azkenik, ZHen aitortzari dagokionez, oso kasu gutxitan adierazten da itzulpenak egiteko ZHez baliatu izana. Bost argitaletxek aitortu dute noizbait ZHak erabili izana aipatu dutela beren lanetan, baina guztiek onartu dute ZHen berri ematerakoan, ez dutela koherentziaz jokatzeko eta ez dutela ZHak adierazteari dagokionez irizpide finkorik. Badirudi, gainera, ZHen aitortpenak ez duela leku finkorik, argitaletxeek liburuko atal ezberdinetan egiten baitute aipamen hori: kreditu-orrian, hitzaurrean edo liburuaren hasieran ohar gisa.

²² <http://www.pasazaite.com/pasazaite-buruz/> Azken kontsulta-data: 2018ko maiatzaren 24a.

9. EUSKAL LITERATUR ITZULPENEN SALMENTA

Elkarrizketatutako argitaletxe guztiak bat datoz euskarazko itzulpenak saltzea ez dela batere erraza eta argitaletxeen erdiek aipatu dute itzulpenak okerrago saltzen direla oro har SLen aldean. Bi argitaletxek esan digute euskal itzulpenen inguruan aurreiritzi asko daudela aspalditik, hala nola ez daudela ondo itzulita, ez dutela graziarik edo zailak direla ulertzen, eta aldarrikatzen zuten ezinbestekoa dela aurreiritzi horiei lehenbailehen aurre egitea.

Euskal itzulpenek merkatuan bizi duten egoera ikusita, ez da harrizkoa oro har itzulpenen tiradak SLenak baino txikiagoak izatea –hala ere, esan behar da badirela SLak adina ale inprimatzen dituzten 2 argitaletxe ere–. Tiradei dagokienez, argitaletxe batetik bestera alde handiak daudela ikusi dugu; 150 aletik hasi eta 1500 alera arteko tiradak dituzte elkarrizketatutako argitaletxeek. Datu horiek gehiago zehaztearren, argitaletxeak bi multzo nagusitan bana genitzake: lehenik eta behin, badira oso tirada txikia (150-300 ale bitartekoa) duten 3 argitaletxe²³, eta bigarrenik, 700 aletik gorako tiradak dituzten 6 argitaletxe. Aipagarria da 6 horietatik 3 argitaletxe 1500 aleko tiradetara ere iritsi izan direla zenbait lanekin. Argitaletxe baten kasuan, ez dugu tiradaren inguruko informaziorik.

Tirada txikiena duten argitaletxeak	200-300 ale bitartean
	300 ale inguru
	150-700 ale bitartean
Tirada handiena duten argitaletxeak	800-1000 ale bitartean
	1000 ale inguru
	800-1200 ale bitartean
	600-1500 ale bitartean
	700-1500 ale bitartean
	1000-1500 ale bitartean

3. taula. Euskarazko literatur itzulpenen tiradak

²³ Horietako baten kasuan, tirada 700 aleraino iritsi izan da zenbait lanekin, baina tiradaren batez bestekoa 250 alekoa dela adierazi zigun. Era guztietara, lehen talde honetan sailkatuko genuke hurrengo multzoan sailkatu ditugun argitaletxeek hortik gorako tiradak baitituzte.

Tiraden arteko alde horiek ulertzeko, badira kontuan izan beharreko zenbait faktore: argialetxeak harpidedunak dituen edo ez (Txalaparta eta MPKen kasua), generoa (narrazioa da guztien artean errazen saltzen dena, beraz, tiradak ere handiagoak izan ohi dira), egilea (ezagunak badira errazagoa da lan horiek saltzea), diru-laguntzak jasotzeko baldintzak (Eusko Jaurlaritzaren laguntza jasotzeko, esaterako, orain arte tirada 600 alekoa izan behar zen gutxienez), garaia, espazio-arazoak (argialetxe txikienek batez ere liburuak jasotzeko espazio gutxi dutenez, nahiago dute tirada txikitari inprimatu eta beharrezkoa bada bigarren inprimaketa bat egin).

Azkenik, itzulpenen salmentek izandako bilakaeraz galdetu genien argialetxeei. Esan behar da, kasu gehienetan, erantzunak editoreen pertzepzioan oinarritutakoak direla, argialetxe bakarrak eman baitigu bere salmenten zifrak ikusteko aukera²⁴. Lehenik eta behin, badira itzulpenen salmentari dagokionez, goranzko bilakaera izan duten bi argialetxe. Hala ere, kontuan izan behar da bi argialetxe horiek duela gutxi hasiak direla itzulpenak argitaratzen, eta beraz, urte gutxiko ibilbidea izan dutela bilakaeraz hitz egiteko. Beste hiru argialetxeren ustez, bilakaera nahiko egonkortuta dago, hau da ez du ez gora eta ez behera egin urteen poderioz, eta horietako batek aipatzen zigun gorabeherak ez direla horrenbeste denboraren baitakoak, baizik lanaren araberakoak. Gainerako bost argialetxeek beheranzko bilakaera ikusten dute euskal itzulpenen salmentan. Are gehiago, bost horietatik lau argialetxeek diote beheranzko bilakaera horrek itzulpen-lanei ez ezik, orokorrean euskal literatura guztiari eragiten diola; hau da, orokorrean gero eta euskal literatura gutxiago kontsumitzen dela (bai itzulpenak eta bai SLak)²⁵. Argialetxe batek aipatzen zuen literaturari ikusgarritasun gutxi ematen zaiola oraindik ere hedabideetan eta horrek ez duela batere laguntzen euskal literaturaren kontsumoan.

²⁴ Datu horiek ikusirik, argi dago argialetxe horren salmentek beheranzko bilakaera izan dutela azken urteetan. Gainera, argialetxe berak aipatzen zuen lehen ohikoa zela 2000 aleko tiradak egitea, baina gaur egun 1500 ale baino gehiago inprimatzea ez dela bideragarria eta bigarren inprimaketak ere ez direla batere ohikoak. Hala ere, euskal itzulpenen bilakaera orokorraz hitz egin ahal izateko, ezinbestekoa litzateke argialetxe guztien bilakaera banan-banan aztertzea.

²⁵ Euskal liburugintzak izandako bilakaeraren inguruan gehiago jakin nahi izanez gero, ikusi Elkar Fundazioak eta Siadeco ikerketa-elkarteak euskarazko kultur kontsumoari buruz egindako ikerketa edo Eusko Jaurlaritzaren 66. Euskal Soziometroa.

Bestalde, lau argitaletzek adierazi dute badirela salmentei bulkada handia ematen dieten hainbat faktore: irakaskuntza-planetan sartzen diren liburuak, indar handia hartzen ari diren irakurketa-klubak nahiz askotariko kultur ekitaldiak (liburu-azokak, poesia-errezitaldiak, egile/itzultzailearekin solasaldiak...).

10. ONDORIOAK

Azterketa honen bidez, euskaratutako literatur itzulpenen atzean dagoen errealitatea ezagutu nahi izan dugu, horrela, argitaletxeek egiten diren itzulpenetan zenbaterainoko eragina duten ezagutu ahal izateko.

Lehenik eta behin, ikusi dugu itzulgaiak aukeratzeko orduan, argitaletxeen esku egoten dela oro har zer itzuliko den erabakitzea. Zenbaitetan, argitaletxeei proposamenak ere iristen zaizkie (argitaletxearen arabera pisu handiagoa edo txikiagoa hartzen dute), baina kasu horietan ere, argitaletxeak dira azken finean proposamenak onartzeko edo ez eskumena dutenak. Badirudi, beraz, argitaletxeek zeresan handia dutela itzulgaien aukeraketan, baina ez dugu ahaztu behar erabaki horiek bestelako faktoreek baldintzatuta egoten direla maiz: gizartearen interes literarioa, lan batek merkatuan izan dezakeen oihartzun komertziala, erakunde desberdinek emandako dirulaguntzak, lan jakin bat itzultzeko prest leudekeen itzultzaileak izatea... Hortaz, argitaletxeek itzulgaien aukeraketan zeresan handia badute ere, ezin esan dezakegu % 100ean argitaletxeek hartutako erabakia izaten dela, bestelako faktoreek argitaletxeen erabakiak baldintzatzen dituztelako.

Era berean, itzultzaileak aukeratzekoan ere argi ikusten da argitaletxeen erabakiek pisu handia dutela, argitaletxeak izaten baitira oro har itzultzaileekin harremanetan jartzen direnak (argitaletxe bakoitzak bere irizpideei jarraituz). Itzultzaileen baldintzak direla-eta, ordea, argitaletxeekin batera, bestelako eragileek ere zeresan handia izaten dute. Epeei dagokienez, kasu batzuetan, epeak ezarri egiten zaizkie itzultzaileei, baina joera nagusia itzulpen-epea itzultzaileekin adostu edo euren esku uztea da. Tarifen kasuan, itzultzaileez gain (gogora dezagun bost argitaletxek adierazi digutela tarifa itzultzailearekin adosten ahalegintzen direla), argitaletxeen ahalmen ekonomikoak ere badu bere eragina (hori era berean, merkatuaren, hau da salmenten, eta jasotako dirulaguntzen baitakoa litzateke).

Zalantzarik gabe, argitaletxeen hautuak ere erabakigarriak dira itzultzaileei emandako ikusgarritasunean. Euskal argitaletxeen kasuan, ikusten da argitaletxeek itzultzaileei egindako lana aitortzeko ahalegina egiten dutela; kreditu-orrian itzultzailearen izena aipatzeaz gain, barruko azalean eta kasu askotan baita kanpoko azalean ere, adierazten dute itzultzailearen izena. Hala ere, itzultzailearen izena aipatzeaz gain, ez da itzultzailearen inguruko datu gehiagorik txertatzen normalean liburuetan.

Bukatzeko, inprimaketa eta salmenta direla-eta, argitaletxeek zeresan gutxi dute horretan, alderdi horiek merkatuaren, gizartearen irakurketa-ohituren eta literatur itzulpenei emandako ikusgarritasunaren (hedabideetan, esaterako) baitan egoten baitira, besteak beste. Hori kontuan izanik, interesgarria litzateke literatur itzulpenen salmentak izandako bilakaera orokorraren inguruan gehiago sakontzea. Argi dagoena da euskal itzulpenen harreraren inguruan aztertu eta dauden aurreiritziei aurre egiteak, bai eta literaturari ikusgarritasun handiagoa emateak, mesede egingo liokeela euskarazko literatur itzulpenen salmentari.

Hau ikusirik, argi geratzen da zenbait teoriarik proposatu bezala (Even-Zohar, Toury, Venuti...) itzulpenak aztertzerakoan oso garrantzizkoa dela itzulpenak bere testuinguruan kokatzea. Horretarako, argitaletxeen egitekoa aztertu dugu lan honetan, baina ezin da ahaztu literatur itzulpenak baldintzatzen dituzten bestelako faktoreak ere badirela, hala nola literatur merkatua, gizartearen irakurketa-ohiturak (eta horri lotuta, itzulpenen harrera), erakunde desberdinek emandako laguntzak eta itzultzaileak berak. Eragile horiek guztiek osatutako sare konplexu batean jaiotako testuak dira azken finean literatur itzulpenak.

BIBLIOGRAFIA

- ARMIARMA. *Literatur Aldizkarien Gordailua*. <<https://andima.armiarma.eus/>>
[Azken kontsulta-data: 2018ko apirilaren 12a]
- BASSNETT, S. eta LEFEVERE, A. (1990). *Translation, History and Culture*. Londres eta New York: Pinter.
- EIZIE. *NorDaNor*. <<http://nordanor.eus/>> [Azken kontsulta-data: 2018ko maiatzaren 21a]
- ELKAR FUNDAZIOA ETA SIADECO. (2018). *Euskal Herriko biztanleen irakurketa eta musika ohituren ikerketa*. <https://postdata.elkar.eus/wp-content/uploads/2018/03/Elkar_Siadeco_agerraldia_martxoak_14-def.pdf>
[Azken kontsulta-data: 2018ko maiatzaren 21a]
- EUSKAL HERRIKO AGINTARITZAREN ALDIZKARIA. (2018). *AGINDUA, 2018ko otsailaren 13koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, 2018. urtean literatura-argitalpenetarako diru-laguntzak emateko arauak ezarri eta deialdia egiten duena*. <<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2018/03/1801176e.pdf>> [Azken kontsulta-data: 2018ko maiatzaren 29a]
- EVEN-ZOHAR, I. (1990). “Polysystem studies” in *Poetics Today*, 11, 1, 9-85. <http://www.tau.ac.il/~itamarez/works/books/Even-Zohar_1990--Polysystem%20studies.pdf>. [Azken kontsulta-data: 2018ko maiatzaren 24a]
- IGELA ARGITALETXEA. <<http://www.igela.eus/language/eu/europe-culture-programa>>
[Azken kontsulta-data: 2018ko maiatzaren 24a]
- LÓPEZ GASENI, M. (2009). “Euskal itzulpenen inbentarioa eta azterketa (1976-2008)” in *Senez*, 37, 299-311. <<http://www.eizie.eus/Argitalpenak/inbentarioa/inbentarioa.pdf>>
[Azken kontsulta-data: 2018ko maiatzaren 15a]
- MUNDAY, J. (2012). *Introducing Translation Studies: Theories and Applications*. Abingdon eta New York: Routledge.
- PASAZAITE ARGITALETXEA. <<http://www.pasazaite.com/pasazaite-buruz/>>
[Azken kontsulta-data: 2018ko maiatzaren 24a]

- PROSPEKZIO SOZIOLOGIKOEN KABINETEA eta EUSKO JAURLARITZAKO
LEHENDAKARITZA. (2018). 66. *Euskal Soziometroa*.
<[http://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/sociometro_vasco_66/eu_d
ef/adjuntos/18sv66.pdf](http://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/sociometro_vasco_66/eu_d
ef/adjuntos/18sv66.pdf)> [Azken kontsulta-data: 2018ko maiatzaren 21a]
- TOURY, G. (2012). *Descriptive Translation Studies and beyond*. Amsterdam eta
Filadelfia: John Benjamins.
- VENUTI, L. (1998): *The Scandals of Translation: Towards an ethics of difference*.
Londres eta New York: Routledge.

ERANSKINAK

I. eranskina. Elkarrizketetarako erabilitako galdeetgia

ARGITALETXEENTZAT GALDETEGIA

1. Datu orokorrak

- Noiz sortu zen eta zein helbururekin?
- Itzulpenak soilik ala sormen-lanak ere argitaratzen dituzue? Zein da bakoitzak ekoizpen osoan duen pisua?
- Euskararako itzulpenak soilik edo beste hizkuntzetara itzultitako lanak ere argitaratzen dituzue?
- Zein hizkuntzatatik itzultzen da gehien euskarara?
- Zubi-hizkuntzarik erabiltzen da?
- Zein generotakoak dira lan gehienak?

2. Itzulpenen aukeraketa

- Itzultzaileak etortzen dira argitaletxera ala zuek erabakitzen duzue lan baten itzulpena egitea. Hala balitz, zein irizpideren arabera erabakitzen duzue zein lan itzuli?
- Diru-laguntzaren bat jasotzen al duzue itzulpenak egiteko?

3. Itzultzaileen aukeraketa eta lan-baldintzak

- Nola aukeratzen dituzue itzultzaileak?
- Laginik eskatzen al duzue ala zuzenean itzultzaile bati esleitzen diozue itzulpena?
- Itzultzaileen profila: sexua, adina, ikasketak, lanbidea (itzulpenaz gain, beste lanpostu bat duten)...
- Zeren arabera zehazten dituzue epeak? Itzultzailearekin adosten dira?
- Tarifak finkoak dira ala itzultzaileekin adosten dira?
- Prozesuan zehar, nolako harremana izaten da itzultzaileekin? (Zalantzak... argitzeaz arduratzen da norbait ala itzultzaileen esku geratzen da dena?)
- Zuzenketarik egiten da? Nork egiten ditu zuzenketa horiek?

4. Elementu paratestualak

- Itzultzailearen izena non aipatzen da?
- Jatorrizkoaren izenburua non adierazten da?
- Zubi-hizkuntzarik erabili bada aitortzen al da?

- Itzultzailearen daturik txertatzen al da liburuko atalen batean (azala, sarrera, hegala, kontrazala...)

5. Inprimaketa eta salmenta

- Zenbat ale inprimatzen dira?

- Euskal itzulpenak erraz saltzen al dira? Sormen-lanen aldean, zenbateko pisua dute?

- Bilakaera goranzkoa ala beheranzkoa izaten ari da azken urteetan?